



Irakurketa Errazean

2026ko urriaren 15a

Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Eguna

Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Eguna

Urriaren 15ean

Landa Eremuko Emakumeen

Nazioarteko Eguna ospatzen dugu.

Landa-eremuko emakumeak

herrietan edo biztanle gutxiko eremuetan

bizi diren emakumeak dira.

Nafarroako toki eta lurralde entitateek

aitortu nahi dugu

emakume hauek garrantzitsuak direla.

Toki eta lurralde entitateek

Nafarroako gai publikoak, adibidez

udalak kudeatzen dituzte.

Halaber, emakume horien lana

ezagutarazi nahi dugu

eta beren herrien etorkizunari buruzko

erabakiak hartzean

parte hartu dezaten nahi dugu.



Zergatik dira garrantzitsuak landa-eremuko emakumeak?

Landa-eremuko emakumea izatea
ez da soilik herri edo
landa-eremu batean bizi izatea.

Landa eremuko emakumeek arazoak dituzte
eta proiektu berriekin irtenbideak bilatzen dituzte.
Pertsonen artean harremanak sortzen ere
laguntzen dute eta
beren herriak hobetzen parte hartzen dute.

Urte anitzetan
milaka emakume lagundu dute
herriak garatzen
eta bertan bizi diren pertsonen bizitza hobetzen.

Landa-eremuko emakumeek
lan garrantzitsu anitz egiten dituzte
adibidez:

- Proiektuak martxan jartzen dituzte.
- Lanpostuak sortzen dituzte.
- Gizarte- eta kultura-jarduerak antolatzen dituzte.
- Elkarte eta kooperatibetan parte hartzen dute.
- Erakundeen parte dira
adibidez, udalak.

Horregatik guztiagatik
landa-eremuko emakume gehiagok
beren herriei buruzko erabakiak hartzea nahi dugu.



Ba al dago berdintasunik emakumeen eta gizonen artean landa-eremuan?

Oraindik **ez**.

Emakumeek eta gizonak ez dituzte aukera berdinak landa eremuan.

Oraindik ere badira desberdintasunak adibidez:

- Emakumeentzat zailagoa da zerbitzuak, laguntzak eta aukerak eskuratzea.
- Pertsonak ez dute beti beren lana baloratzen.
- Emakumeek gizonak baino zaintza-lan gehiago egiten dituzte.
- Emakume gutxiago dago erabaki garrantzitsuak hartzen diren lekuetan. Hala nola udaletan.



Horregatik guztiagatik landa-eremuko emakume gehiagok beren herriei buruzko erabakiak hartzea nahi dugu.

Landa-eremuko emakumeek beren herriak hobetzen laguntzen duten ezagutzak eta esperientzia dituzte eta garrantzitsuak dira herrien etorkizunerako.


Ezin dugu gure herrien etorkizuna eraiki landa eremuko emakumeak eta haien iritzia kontuan hartu gabe.



Zertara konprometitzen gara?

Nafarroako toki eta lurralde entitateek konpromiso hauek hartzen ditugu:

- Landa eremuko emakumeek egoera eta bizitzeko modu desberdinak dituztela erakustea.
- Landa-eremuko emakumeak proiektuak egiteko eta ekonomian eta politikan gizartean aldaketak lortzeko gai direla onartzea.
- Landa-eremuko emakume gehiagok erakundeetan adibidez, udaletan postu garrantzitsuak bete ditzaten eta erabakiak hartzen parte hartu dezaten laguntzea.
- Oztopoak kentzea gizartean gehiago eta hobeki parte har dezaten.
- Landa-eremuetarako politikak edo legeak egiten ditugunean, emakumeen eta gizonen beharrak eta egoerak kontuan hartzea.
- Landa-eremuan emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko administrazio publikoei neurriak eskatzea



Zer esan nahi du

"Landa-eremuko emakumeak erabakiguneetan" esaldiak?

Landa-eremuko emakumeek beren herrietan hartzen diren erabakietan gehiago parte hartu behar dute erran nahi du.

Berdintasunak ezin du gehiago itxaron.



Landa-eremuko emakume gehiagok erabakitzea hau da:

- Berdintasun gehiago.
- Parte-hartze gehiago.
- Gure herrientzako etorkizun gehiago.

Landa-eremuko emakumeek Nafarroaren etorkizunari buruzko erabakiak hartzen diren lekuetan parte hartu behar dute.

